



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



ZUBIAURRE IGERIKETA KLUBA

URPEAN ERE ARNAS



HORTZ KLINIKA



BERTAKOAK,
PROFESIONALAK ETA
KONFIANTZAZKOAK


Jose Artetxe 5
📞 943-02 59 55

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



ALBERDI
INMOBILIARIA

IDÉ FORM

ALBERDI
INMOBILIARIA

Amets askoren bidelagun gara.

Etxebizitza baten salerosketa kudeatu eta erabateko erreforma agin ondoren, alokatu dugun etxe bat aurkeztu dizuegu.

Uneoro hain garrantzitsua den eta bezera bakoitzari dagokion aholkularitza fiskala eman diegu.

Zerbitzu integral bat eskaintzen dizuegu, zuen behar guztiei erantzuna emanez.



Eskaerak osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 426

2022-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANARTZ IZAGIRRE

Aurkibidea

- | | | |
|---|---|--|
| <p>5 Iritzia Andoni Elduaien,
<i>Bizitzaren zentzua.</i></p> <p>6 Hitz bitan Jakes Zubillaga, Enduro
Ezcaray enpresaren jabea.</p> <p>8 Izpiak eta hizkiak
Javier Beristain, <i>Bizi natura,
baina horrela ez!</i></p> <p>10 Iritziak Karmen Irizar, <i>Eragin nahi
duzun hori</i>; Imanol Elezgarai,
<i>Orain arte.</i></p> <p>12 Elkarrizketa Luix Alberdi,
dantzaria eta dantza irakaslea.</p> <p>20 Erreportajea Blai, <i>hiru hamarkadaz.</i></p> <p>24 Zakelmari.</p> <p>26 Erretratua Jorge Arzallus <i>Jorginho</i>,
musikaria.</p> | <p>30 Plazan Bazan.</p> <p>32 Iritzia Jose Ramon Aranbarri,
<i>'Arbitro compro'</i></p> <p>33 Iritzi grafikoa Sara Rodriguez,
<i>Elkargunea.</i></p> <p>34 Elkarrizketa Bakarne Etxeberria,
Hurkoa fundazioaren Hauskor
programako koordinatzailea.</p> <p>38 Klik! <i>Marea zuria, beltzean.</i></p> <p>44 Iritzia Ioritz Gonzalez,
<i>Nik bai, eta hik?</i></p> <p>46 Euskara Ixabel Jauregi,
<i>Poesiarik ez balitz!</i>
Bertsoa paperean.</p> | |
|---|---|--|

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua
Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Elduaien
Mailo Oiarzabal
Ane Olaizola

Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
Javier Beristain
Karmen Irizar

Imanol Elezgarai
Naia Arriazabalaga
Gorka Larrañaga
Jose Ramon Aranbarri
Sara Rodriguez
Ioritz Gonzalez
Ixabel Jauregi
Xabi Aldalur

**Administrazio
Inprimategia**
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale



PUBLIZITATEA

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 5 AZPETA
672 17 88 51



EGUZKI
belandanda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-60 34 47 **AZKOITIA**
Urbaitze 9 bis • 943-10 00 23 **AZPETA**

Web proiektuak
Software ingeniarietza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
Sport

Erretiroa, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 57 • 943-85 20 99
AZKOITIA

tta
kun
4k

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA
TABERNA

Etxeza Etxez, Z/G. • 943-85 20 31

artelan

Txulo Arango
Arangoak
Tel. 943 02 18 14
943 02 18 14

- Manxaria
- Olio-pintura
- Akwarela
- Pasketa-pintura
- Kafe
- Marrazkia
- Terapiak
- Plastilina
- Edukionak



zurt

OGI-ARTISANAK
SANEATZENAK ETA HAMBURGESA
DINTSALAK
KAZIOAK
GARIAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIAK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ARTISANU PIZTE
DINTSALAK
PINTOIAK
PLATER KONSERBUAK
KAZIOAK
OSTIARTERAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOLAI ETA ANJO KUPA
PANEKORAK
LARRU-ETXEN 00.00 ARTE IBERIA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com

ARANBARRI
DINTSALAK

ESKAINTZA
Julio Urkijo Kalea

63 m²
2 1

www.aranbarri.com



Bizitzaren zentzua



ANDONI ELDUAIEN

Badoa 2022. urtea ere. Egun gutxi gelditzen zaizkigu urte zaharra agurtu eta urte berriari ongietorria emateko. Urtearen balorazioa positiboa edo negatiboa izan da? Hori izango da hil hau amaiera aldera gerturatu eta azken hamabi hilabeteen errepasoa egiterakoan gutako bakoitzak buruan izango duen galdera. Erantzuna ematea ez da erraza. 2023. urtean sartuko gara, urte borobila 1993. urtean jaio ginen guztiontzat; izan ere, dena ondo bidean, gure bizitzako hirugarren eskailera mailara jauzi egingo dugu. Irudipena dut, haurrak edo gaztetxoak ginen sasoiko bizitza hura guztiz aldatu zaigula; aldatu edo galdu, ez dakit nola deitu. Aldaketa bat bizi izan dugu, eta horri izen bat eman behar diodanez, bizitzaren zentzua deituko diot, akaso hori baita urtez urte gutako bakoitzari aldatzen zaiguna: zentzua.

Bizitzaren zentzua zein eta zer den galdetzea ez da gauza berria; eta ez da erraza. Mendez mende, galdera horren erantzun bakar bat lortzeko ahaleginak egin diren arren, galderak indarrean dirau oraindik guztiontzat. Zergatik? Ez dagoelako pertsona guztiontzat balio duen erantzun bakar bat, ez baitago zentzu bakar bat guztiontzat; eta eskerrak. Guztia ari da aldatzen bizitzan, egunez egun eta orduz ordu, eta eguneroko gertakizunek, onek zein txarrek, eragina dute pertsona bakoitzaren bizitzaren zentzuan. Adinarean, testuinguruaren eta bakoitza murgilduta dagoen kulturaren arabera ere aldatzen da zentzua, baita sinesmenak eta esperientziak kontuan hartuta ere. Bizitzaren zentzua ez da berbera eskolaratu berri den haur batentzat edo unibertsitatea amaitzea desio duen ikasle batentzat; edota ez da bera gaixotasun larri baten aurka ari denarentzat. Adibideak milaka izan litezke.

Nire lehengo eta oraingo bizitzaren zentzuak ere zeharo desberdinak dira. Duela urte batzuk, batik bat umetan, ezkontzea, dirua izatea, munduko txoko zirrargarrienetara bidaiatzea eta auto nahiz etxe ona erostea genuen buruan. Zuek ere bai, ezta? Hala ikusten genuen etorkizuna eta halako kaleko jolasak egiten genituen, izan sokadantzan –*Aita, ama, zenbat urterekin ezkonduko naiz?*, zioen batek– edo paperezko *comecoco* izeneko jolasean. Orain, ohartu naiz horiek guztiak nire buruko ilusioak edota tranpak zirela. Egungo errealitatetik oso urrun gelditu diren ilusioak izan dira behintzat.

Abenduko lehen egunetatik so eginda, ez dakit etorkizunean zein izango den nire bizitzaren zentzua. Etorriko den aldaketak edo etorriko ez denak emango dit erantzuna. Oraina bizitzeko gai izateak ematen dio zentzua nire bizitzari, bizitzen ari naizen aldiro gozatzeak, ondoren datorrenaz pentsatu gabe. Saia gaitezen aldaketa horiek guztiak bizitzako aukera bezala ulertzen. ■

**ORAINA BIZITZEKO GAI
IZATEAK EMATEN DIO
ZENTZUA BIZITZARI,
BIZITZEN ARI NAIZEN
ALDIRO GOZATZEAK**

"Ezkarain topatu dut nire lekua, kirolean eta naturan"

TESTUA: **ANARTZ IZAGIRRE**

ARGAZKIA: **ANGEL M^a CEREZO**

Duela hamar urte baino gehiago joan zen Jakes Zubillaga (Azkoitia, 1991) Ezkaraira (Espainia) bizitzera, eta duela hiru urte bizikleta txangoak antolatzen dituen Enduro Ezcaray enpresa sortu zuen hango bi lagunekin.

Enduro Ezcaray enpresa sortu zenuten duela zenbait urte. Nola hasi zen guztia?

Pandemia bete-betean zabaldu genuen enpresa. Bizitza osoan ezagutzen garen hiru lagun eta bazkidek sortu genuen, eta orain dela hiru urte hemen inguruan dagoen zirkuitu bat garbitu eta hari pare bat jauzi gehiago jarri genizkion. Ikusi genuen jende asko ari zela etortzen, eta horregatik sortu genuen enpresa. Furgoneta bat erosi genuen, eta Errioxako herri txiki batean egiten dituzten orgak ere bai, bizikletak eramateko. Asteburuetan jarduerak egiten hasi ginen, eta geroz eta eskari handiagoa edukitzen joan gara. **Ordutik, sona izaten hasi zarete.**

Bai. Geroz eta eskari handiagoa dugu Ezkaraiko mendiak erakusteko, bidaiak egiteko. Hasieran herrian ez gintuzten ondo ikusi, mendiak publikoak direlako, baina azken urteetan ikusi da jende asko gerturatu dela herrira bizikletekin, eta tabernetan ere mugimendua antzematen da.

Enpresa sortu eta urtebetera Ezkaraiko udal ordezkariekin bildu ginen, eta ingurumen baimenak lortzea erraztu digute horiek.

Zeintzuk dira zaleen artean arrakastarik handiena duten jarduerak?

Bizikletaz erremonteak egiten ditugu, eta horiek dira ezagunenak. San Lorenzo puntara igo eta handik herrira jaisten gara bezeroekin bizikletaz. Goizean goiz gelditzen gara haiekin, eta furgonetarekin nahiz orgarekin herriko hiru punturik garaienetara igotzen gara gero horietatik jaisteko.

Urteko zein garaitan izan ohi duzue eskaririk handiena?

Udaberrian eta udazkenean, udan lurrazala oso lehorra egoten baita.

Eta zer-nolako bilakaera izan du Enduro Ezcarayk hasi zinetenetik hona?

Orain pare bat markarekin kolaboratzen dugu, baina oraindik ere ez da gure lehen lana bilakatu; *hobby* bat da. Bazkideetako bat neguko denboraldian Andorran egoten da, bestea mendiko gida da eta ni ere elurretako ekintzetan aritzen naiz neguan. Dena den, egunetik egunera udan ere bizikletekin lanean aritzeko apustu handiagoa egiten ari gara.

Zer erantzun jaso duzue bezeroengandik?

Ona. Orain dela urte batzuk, enpresa zabaldu aurretik, ez zegoen bizikleten halako mugimendurik Ezkarain. Gainera, gugana etortzen dena ez da bizikletan ibiltzera bakarrik etortzen, gero hemen gelditzen da. Bezeroen artean badira bizpahiru aldiz gugana jo dutenak ere. Bestalde, igartzen da inguruan geroz eta eskaintza handiagoa dagoela.

Zer moduzko paisaiak dira Ezkarai eta Errioxa ingurua kirol hori praktikatzeko?

Errioxa nahiko lau dela dugu buruan, baina Ezkarairi Demanda mendilerroa deitzen diote. Errioxa Garaian gaude, Burgos eta Soria probintziekin mugan, eta 150 kilometro koadro mendi ditugu inguruan. Lekua, beraz, perfektua da bizikletaren mundurako.

Sarritan arriskuarekin lotzen da eskaintzen duzuen kirola. Zer da garrantzitsuena ezer gerta ez dadin?

Bidezidorrak estuak dira, eta bakoitzak bere maila kontuan izanda, abiadura kontrolatzen ikasi behar du. Minik ez hartzeko garrantzitsua da ahalik eta babes handiena eramatea gainean.

Lana Ezkarain egiteaz gain, bertan bizi zara.

Zer-nolako lekua da bizitzeko?

Azkoitian ondo bizi nintzen, baina Ezkarain, egia esan, bizi kalitate oso ona daukat. 17-18 urterekin etorri nintzen hona bizitzera, eta oso ondo bizi naiz: neguan eskiatu egiten dut, eta udan taberna batzuetan lan egin izan dut urte luzez. Ezkarain topatu dut nire lekua, kirolarekin eta naturarekin. Azkoitira nahi baino gutxiagotan joaten naiz. ■■■



Bizi natura, baina horrela ez!

ARGAZKIA ETA TESTUA: **JAVIER BERISTAIN**

Argazkia Aittolako pagadian ateratakoa da, bidetik gertu, baina mendi-mendian.

Mendietara hurbiltzeko gehienok erabili izan dugu autoa noiz edo noiz. Hurbiltzeko bakarrik, ordea. Dirudienez, honek ez du ondo ulertzen *hurbildu* hitzaren esanahia eta pagadi barru-barruraino sartu zen, zaldiei bidea oztopatuz eta niri argazki polit bat ateratzeko aukera zapuztuz.

Gure etxean esan ohi den bezala: "Ze nezesidade!". ■■■







Eragin nahi duzun hori

Egiten dugun orok du nolabaiteko eragina. Norberak erabaki behar du zer eragin nahi duen", Jane Goodall primatologoaren esaldi hori izan zen aurtengo *Geure gelatik* liburu azokako goiburua. Sekulako indarra duen mezua delako aukeratu genuen, ona zein txarra aitortzen dituelako eta bataren zein bestearen artean hautatzeko aukeraz eta askatasunaz jabearazten gaituelako.

Albistegiek begi-bihotzak minez, malkoz eta kontu tristeez gainezka egin arte betetzen dizkiguten honetan, leihotik euri zaparradari begira nagoela, neure artean pentsatzen aritu naiz zerk bultzatzen ote gaituen mina eta negarra eragitea aukeratzeraz, zergatik ote den hain erraza bortizkeria, jarrera oldarkorrak eta hitz gorrak

han-hemenka entzutea, zergatik behar izan dugun pandemia bat konturatzeko zenbateraino hauskorrak garen eta zenbateraino behar dugun elkar.

Eta burura etorri zait, ez dela gauza handirik behar edozein unetan gozo eta poz pixka bat zabaltzeko. Nahikoa dela urtebetetzea duen horri "urte askoan!" esatea irribarrea piz dakion ezpainetan, edo etxepeko bizilagunari pakete handi bat igogailuraino eramaten laguntzea zer moduz dabilen galdetu eta norbait

**ITZELEKO ARRAKASTA
IZANGO LITZATEKE
JAKITEA IDATZIEK
NORBAITI IRRIBARREA
ERAGIN DIOTELA**

berarekin akordatzeko dela jakinarazteko. Nekez ulertuko dugu etxean gaixoa gogorra edo egoera latza pasatzen ari denaren trantzea, baina kontatzeko duen horri arreta pixka bat jartzea nahikoa da une batean topea iritsi zaiola ikusten duen horrek barrua ondo lasaituta eta buruan dabilzkien kezak arindu egin zaizkiola sentitzeko.

Ez du horrek egoera aldatzen, ez mundua hobetzen, ez mina betirako kentzen, baina bidea leuntzen du, bakardade sentimendua argitzen du eta itxaropenari zirrikitua irekitzen diola sinetsita nago.

Bestea ere zilegi da, jakina, norberak bere kolkoan nahikoa lan duela iritzita, norbere bidea egitea, bidelagun ditugun horiei arreta handirik jarri gabe.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Orain arte

Denbora gure egunotako misteriorik handienetarikoa bat da oraindik. Denari zifra bat jarri eta neurri hartzeko gai garela uste dugu; hirurogei segundo, ordubete, mende erdi, bizitza oso bat. Alabaina, denboraz dugun sentazioa maiz ez dator bat zifra artifiziosu horiekin. Segundo gutxitako muxu bat eternala izan daiteke; hilabeteko oporraldi bat, berriz, eskutatik ihesi doakigu argiaren abiaduran.

Azkenaldian ondoezak jota nabil, ezer seriorik ez, espero dut. Aste gutxi batzuk dira momentuz, eta hala ere, asteak bailiran pasatzen zaizkit egunak, urteak balira bezala asteak. Pasiera bat, zinemara joatea, lagunekin trago bat hartzea edo besterik gabe ohean etzatea zeinen gauza ederrak diren ez dugu askotan baloratzen, horiek mina edo ondoeza sentituz egin behar ditugun arte. Eta orduan, frustrazioak gain hartuta pentsatzen duzu: "Eta hau betirako balitz? Ez al dut berriz burua argi dudala plazer txiki horiez disfrutatuko? Bizitza, minik gabe, honaino balitz, aprobeztatu al dut? Zer egin dut nik orain arte?". ■

Biak aukeran izanda, ordea, eta biek ala biek antzeko ahalegina eskatuta, zergatik ez egin ongizatea eta poza eragin dezaketen detaile txiki horien alde? Zergatik ez jokatu pertsona guztiekin abegitsu eta gozo?

Atrebentzia da beti norberak esateko duena argitaratzeko modukoa dela pentsatzea. Atrebentzia horri helduta ibil naiz 1996az geroztik. Sarriago batzuetan eta tarte handiagoarekin bestetan, 26 urtez idatzi ditut unean-unean buruan ibili ditudan gogoetak eta iritziak, eta Maxixatzenek beti argitaratu ditu. Ez dakit zenbat jendek irakurriko zituen nik idatzitako artikulua, baina guztiekin heldu zait gozo pixka bat. Ados egon edo ez, beti helarazi didate hainbat lagunek idatzi dudana horri buruzko

iritzia. Ederra da norberak idatzitakoa irakurtzeko tarte hartu dutela ikustea. Egoa pixka bat puzten dizu, eta batez ere, norbait entzuten ari zaizula sentitzen duzu, badela norbait zuri arreta jarri dizuna, bazarela nor norbaitentzat.

Itzeleko arrakasta eta saria izango litzateke jakitea idatziek norbaiti irribarrea eragin diotela, lerro artean bere burua ikusi duela edo berak pentsatzen duen hori jasotzen duela testu batek. Eta are arrakasta handiagoa jakitea, zauririk ez duela eragin, ez diola inori begitartea goibeldu eta ez duela bere burua baztertuta ikusi. Halakorik izan bada, hanka sartze galanta egin dudala aitortu eta barkamena eskatu baino ezin dut egin. Plazera izan da. Hurrena arte. ■



"Dantzak gorputz hezkuntzan sartu beharko lituzkete"

LUIX ALBERDI DANTZARIA ETA DANTZA IRAKASLEA

Euskal dantzek, eta, bereziki, dantza suelto txapelketek azken 40 urteotan bizitako bilakaeraren partaide eta lekuko zuzena izan da Alberdi. Txapelketak eta Sahatsa dantza taldeko ibilbidea bukatu zituen, baina ez irakasle lanak. Uzteko asmorik ere ez dauka, "hankak ondo" dituen bitartean.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta utzitakoak**.

Bigarren azala du dantza Luix Alberdi *Beltzak* (Aizpurutxo, 1966). Etxean eta etxekoen jatetxeko bezeroen giroan murgilduta hasi zen hankak astintzen, eta ez da gelditu harrezkero. 30 urtetik gora dantzari aritua, taldean zein bikoteka eta txapelketetan, duela berrogei urte ekin zion dantza eskolak emateari, eta horretan jarraitzen du. Orain, gainera, lehen aldiz, dantza irakaslearena bihurtu zaio lanbide bakar. **Aizpurutxon sortua zara, baina ez zenuen denbora asko egin han, ezta?** Aizpurutxon jaiotakoa naiz, bai, Beheko tabernan, Itziar taberna-jatetxean. Aita-amak Aizpurutxokoak dira, aita Etxebeltzekoa eta ama Bikuinetakoa, eta hiru anai-arreba zaharrenak ere bai. 11 hilabete nituela joan ginen Landetara bizitzera, Azpeitira; orain Mendizabal taberna den horretan ireki zuten gurasoek jatetxea, Santio egun batean. Han egon ginen nik 10 urte nituen arte. Soinujole mordoa elkartzen zen Landetako jatetxean asteburuetan: Martirietakoak, Urrategikoak... inguruko denak. Gaur egun

gutxituta dago ohitura, baina garai hartan, ezkontzetatik bueltan afaltzera joaten zen jende guztia. Kristoren kuadrillak elkartzen ziren, eta kristoren erromeriak egiten ziren.

Han ikasi al zenuen dantzan?

Han ibiltzen ginen gu, jendearekin batera korroan sartuta. Horrez gain, Koro arreba eta biok jo eta ke aritzen ginen dantzan, goiko jantoki zaharrean tokadiskosa jarrita, geure kasa. Txiki-txikitatik datorkigu zaletasuna. Gainera, gure familian, aita-amak zein izeba-osabak, denak izan dira erromeria zaleak. 7-8 urte nituela, Itsasin hasi nintzen, eta talde horretan ibili nintzen 15 urtera arte. Jendeak pentsatzen du Sahatsan hasitakoa naizela, baina ez, Itsasin hasi nintzen.

Dantza suelto txapelketetan ibilbide luzea osatu zenuen. Noiz eta nolatan hasi zinen?

9 urterekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen. Itsasin hasi berri samarra nintzela, Maltzeta aita-alabak etorri ziren egun batean gurera, Juanito eta Mari Karmen Garate. Dantzarako grina nuela ikusita, txapelketako pausoak ikastea nahi al nuen galdetu zidan Juanitok; eta nik baietz, gustatuko litzaidakeela. Horrela, Juanitorekin hasi ginen, Mari Karmen eta





Ikasleekin, Nafarroako banderari gorazarre ekitaldian. UTZITAKOA

biok, lehendabizi Osintxura eta gero Soralezera, dantza sueltoa ikastera joaten.

Han al zeuden irakasleak?

Juantxo Urbietarekin hasi ginen, Bergarako alkate izandakoarekin. Astean bitan joaten ginen, astearteetan eta ostegunetan, lehendabizi Osintxura eta ondoren Soralezera. Mari Karmen eta ni hasi ginen, eta gero baita nire arreba Koro eta Kepa Alberdi ere. Pare bat urte egin genituen hara joanez, eta gero, Azpeitian gelditzen hasi ginen. Mari Karmenek 13 egin zituenean, Hondarribira joan ziren bizitzera, eta bikoterik gabe gelditu nintzen. Itsasiko taldekide batekin hasi nintzen orduan, Nekane Arrietarekin. Itsasin, Mikel [Larrañaga] *Enbortxok* eta Begoñak [Aizpuru] irakasten ziguten, baina dantza sueltoan Maritxo [Unanue] *Muxugorrik* erakusten zigun; haren etxera joaten ginen entseatzera Nekane eta biok. Izan ere, 15 urterekin utzi nuen Itsasi, baina sueltoko txapelketetan jarraitu egin genuen. Nekane utzi egin zuen dantza unibertsitatera hasi zenean, eta orduan, 17 urte nituela, arrebarekin hasi nintzen helduen txapelketetan lehiatzen. Kororekin pare bat-hiru urte egin nituen; lesio bat tarteko dantza utzi beharra izan zuen arrebak. Orduan hasi nintzen dantzan Egurbideko Ainhoa Egañarekin, baina hark ere ikasketak tarteko utzi egin zuen, eta Mirentxu Arizmendirekin jarraitu nuen. Harekin

beste hiru bat urte egin ondoren, Idoia Azkoitia *Albitxurirekin* hasi nintzen, eta hura izan zen dantza suelto txapelketetako nire azken bikotekidea.

9 urterekin hasi zinenetik, sei bikotekide aipatu dituzu. Noiz arte jarraitu zenuen dantza suelto txapelketetan?

40 urterekin lehiatu nintzen azken aldiz Segurako txapelketan. Dantza nire bizitzaren zati garrantzitsua izan da betitik. Dantzak asko eman dit, eta asko ematen ari zait.

Sahatsa dantza taldean ere ibilbide luzea egin zenuen.

18 urterekin hasi nintzen Sahatsan. Garai hartan, Juan Mari Sorazuk erakusten zigun dantza sueltoko txapelketetan aritzeko. Belen Sagarzazu, Ixaak Agirre... harekin ibiltzen ginen. Urte hartan, lehen aldiz, Amaia ezpata dantza egin behar zuen Sahatsak sanandresetan, eta mutilak falta zituzten, hemezortzi behar zituzten eta. Horregatik etorri ziren txapelketetarako trebatzen ibiltzen ginenon bila, pare bat hilabetez lagunduko al genien eskatuz; Sorazu bera Sahatsako txistularia zen. Ixaak eta biok hasi ginen, printzipioz, dantza hori egiteko bakarrik. Gustatu egin zitzaidan taldean zegoen giroa, eta bertan gelditu nintzen. Bietan jarraitu nuen, dantza sueltoan eta Sahatsan, eta batera utzi nituen biak, Sahatsan ere 40 urte nituen arte jarraitu bainuen.



**"DANTZA NIRE BIZITZAREN ZATI
GARRANTZITSUA IZAN DA BETITIK,
ASKO EMAN DIT ETA EMATEN DIT"**

**"GAUR EGUN IKASLE DITUDAN
ASKOREN GURASOAK
NIRE IKASLE IZANDAKOAK DIRA"**

**"GERO ETA MUTIL GUTXIAGO
IKUSTEN DIRA TALDEETAN, ETA HORI
IGARTZEN DA TXAPELKETETAN"**

Dantzari jarduna eta dantza irakasle lana tartekatuta zenituen hainbat urtetan. Nola hasi zinen eskolak ematen?

Azpeitian, garai hartan, dantza taldeak zeuden, Itsasi eta Sahatsa, baina zehazki txapelketetara zuzenduta aritzen zen inor ez zegoen. Neu hasi nintzen, baina halabeharrez bezala. Auzoko bi neskari fandangoa, arin-arina eta aureskua irakasten hasi nintzen, eta gure etxeko sukaldean aritzen ginen! La Milagrosa ikastetxeak ziren bi neskak; Gabon inguruan ikastetxean egin zuten jaialdian dantza egin zuten biek, eta jendeari gustatu. Non ikasi zuten galdezka hasi zitzaizkien, eta horrela, guraso batzuk etorri zitzaizkidan, ematen nituen eskoletaz galdezka. Esan nien lagun gisa ematen nizkiela klaseak, besterik gabe, ez neukala ez lokalik, ez ezer. Baina hasierako guraso haiek nahi zuten seme-alabek dantzak ikastea, eta nahi baldin bazuten erakutsiko niela esan nien. Orduan, sukaldea utzi eta geure tabernako biltegira pasatu nintzen; han prestatu nuen txoko bat, eta bertan hasi nintzen dantza eskolak ematen.

Ahoz ahokoaren poderioz izan zela esan daiteke, aldezturik hartutako erabakiz baino?

Ahoz ahokoaren poderioz eta denak auzoko jendea ginelako, ezagunak. Horrelaxe hasi nintzen dantzak irakasten. Ikasle taldea handitzen joan ahala, sueltoaz gain beste dantza batzuk ere erakusten hasi nintzen, eta 17 urterekin, lokal bat hartu nuen Sanjuandegin, eskolak emateko.

Eta, ikastarturte honetan, Azpeitiko Dantza Suelto Eskolak 40 urte bete ditu. Bada zerbait.

Bada, bai, urte asko pasatu dira. Umeei erakusten gustura ibiltzen naiz, bizipoza ematen didate. Bai lehen, bai orain, beti erronkak jartzen dizkiet ikasleei: "Dantza hau ikasten baduzue, halako lekutan egingo dugu", eta horrelakoak. Haien motibazioa mantentzeko era bat da. Ikasturte honetan, Juan Antxieta musika eskolak eta nire eskolak, biek, betetzen dituzte 40 urte; datorren urterako ari gara prestatzen ekintza berezi batzuk, eta, besteak beste, Dantzari Txiki Eguna antolatu nahi dugu Azpeitian.

Urte hauetan guztietan, zenbat haur pasatu dira zure eskolatik? Gordeta al daukazu datu hori?

Puf! Ezingo nuke esan, baina mordoa izan dira, zientoka. Gaur egun eskolan ditudan askoren gurasoak nire ikasle izandakoak dira, eta hori ez da fenomeno berria niretzat, azken hamar urtetatik hona gertatzen ari zaidana baizik. Gaur egungo ikasleei esaten diedanean beren ama edo



"INORK EZ DAKI ZENBAT ORDU SARTU BEHAR IZATEN DIREN TXAPELKETETAN ARITZEKO"

"DANTZAN HANKAK ETA ESKUAK MUGITZEN DITUZU, ETA GAINERA, BURUA ERE LANTZEN DUZU"

aita ere dantza eskolan nirekin ibili zirela, harrituta begiratu eta galdetzen didate: "Zenbat urte dauzkazu, ba?" [barrez]. Harritzen dituen beste gauza bat da dantzako irakaslea gizonetzkoa izatea. 5-6 urteko ikasleei atentzioa ematen die horrek, pentsatzen dute neska bat izan behar dela irakasten diena; eta gero ohitzen badira ere, hasieran pixka bat atzeratu egiten dira irakaslea mutila dela ikusten dutenean.

Eta hori?

Egia da garai batean oso ohikoa zela dantzak erakusten aritzen zirenak gizonak izatea. Baina egia da, baita ere, mutilei gizonak eta neskei emakumeak erakusteko joera egon izan dela. Azkoitian, Belen Sagarzazu egundoko lana egindakoa da, eta aurretik beste horrenbeste egina zen haren aita, Julen Txiki; Azkoitiko dantzarien erdiak haien eskuetatik pasatutakoak direla esan daiteke, baina esango nuke Belen gehiago aritzen zela neskekin, eta Julen Txiki mutilekin. Azpeitian ere emakumeak ziren erakusleetako asko Itsasin; lehen aipatu ditudan Mikelez, Begoñaz eta Maritxo gain, Mailo Goenaga ere ibiltzen zen dantza irakasle. Eta normalean, Mikel ibiltzen zen mutilei irakasten, eta irakasle emakumeak, berriz, neskei.

Ez al da deigarria gaur egungo haurrak dantza irakaslea gizona delako harritzea? Dantza emakumeekin lotzen al da?

Bai. Gero eta mutil gutxiago ikusten dira dantza taldeetan, eta sueto txapelketetan ere igartzen da hori. Gure garaian, 30 bikote inguru lehiatzen ginen dantza txapelketetan; aurtan, Segurako txapelketan, bederatzi bikote aritu ziren, bederatzi besterik ez, eta horietatik bost Azpeitiko eskolakoak ziren. Azaroko azken asteburuan, txikien mailako Euskadiko Txapelketa izan genuen Bergaran, 11 bikotek eman zuten izena, eta horietatik zazpi ziren Azpeitikoak; beste hiru bikote Lezokoak ziren, eta bat Oiartzungoa. Azkoitikorik ez, Azkoitia izan denarekin. Idoiarekin bikotea osatu nuen garaian, Azkoitia ordezkatzan genuen guk; Belen Sagarzazuk bikote pila bat atera zituen, eta punta-puntakoak, gainera. Egun gertatzen denaren kontra, garai hartan Azpeitian ez zegoen txapelketetan aritzen zen bikoterik. Urteak dira Azkoitia ordezkatzuz bikoterik ez dela irten.

Ikasturte honetan zenbat ikasle dituzu?

Taldean, 58 bat, eta horiez gain, txapelketetarako zazpi bikote; txapelketetan aritzen direnak ere aritzen dira taldean, baina horiek aparte



kontatzen ditut. Beraz, guztira 72 bat ikasle dabilta ikasturte honetan eskolan.

Asko direla esan al daiteke?

Bai, asko dira. Eskolarekin hasi nintzenean, astean bitan ematen nituen klaseak. Orain, berriz, astelehenetik ostiralera egunero ematen ditut eskolak Azpeitian, eta zapatuetan Errezilera joaten naiz. Duela hamar bat urte hasi nintzen Errezilen klaseak ematen. Hasieran, hiru hilabeterako eman nuen hitza, baina gaur arte.

Klase guztiak zuk ematen dituzu ala badaukazu laguntzaileen bat?

Errezilen neuk bakarrik ematen dut klasea, baina Azpeitian laguntzaileak izan ditut beti. Hasieretan, ikasle kopurua hazten zihoala ikusi nuenean, Koro arrebak eta biok ematen genituen eskolak. Soldadutzara joatea tokatu zitzaidanean, Koro bakarrik geldituko zela ikusita, Miren Arizmendiri eskatu nion arrebari laguntzeko. Soldadutzatik itzuli nintzenean, Korok eta biok jarraitu genuen eskolan, arrebak lesioa izan zuen arte. Orduan, neure ikasle izandakoa zen eta Sahatsan zebilen Saioa Arizmendik hartu zuen arrebaren tokia. Ondoren, Maite Bereziartuarekin, Irati Arangurenekin eta Maider Arrietarekin ibili nintzen, eta, gaur egun, Jone Arriaran eta biok gabiltza eskolan. Laguntzaile bat edo bi izan ditut

beti, eta aspaldiko urteetan denak izan dira neure ikasle izandakoak eta ondoren Sahatsara pasatutakoak. Taldeko saioak emateko behar izan dut laguntza, txapelketetan ibiltzen diren bikoteekin neu bakarrik aritzen naiz.

Azpeitiko Dantza Eskolan herri desberdinetako ikasleak elkartzen dira. Nondik joaten zaizkizu ikasleak?

Ibili izan dira edota ibiltzen dira Azpeitikoak, Azkoitikoak, Zestoakoak, Errezilgoak, Legazpikoak, Beasaingoak, Zarauzkoak eta Donostiakoak. Galdetu izan didate zer egiten dudanez eskolak horrelako onarpena eta horrenbeste ikasle izateko, eta erantzun bera ematen dut beti: orduak sartu. Eta uste dut hori falta dela egun. Txapelketetarako irakasleak falta dira, eta hori antzeman egiten da. Inork ez daki urtean zehar zenbat ordu sartu behar izaten diren txapelketetan aritzeko. Txapelketa gogorra da, oso gogorra. Beti esaten diet hasten diren bikoteei: "Probatu egingo dugu, eta gustatzen bazaizue, jarraitu". Zerikusirik ez dauka dantzan taldean aritzeak eta txapelketetan bikotean aritzeak. Dantzan zoragarri jakin arren, denek ez dute ondo eramaten jendaurrean aritzea. Taldean erosoagoa da, baina bikoteka... Jakin egin behar da begirada guztiak zugan jarrita egotea eramaten, eta ez da



erraza. Batzuk asko sufritzen dute, eta horrela ibiltzeak ez du merezi. Dantza gozatzeko da. Dantza ez da dantzan egitea eta kito. Eta espresioa? Espresioa ehuneko berrogeita hamarra da. Teknikoki onena izan zaitezke, baina niri, aurpegiak ez badit ezer adierazten, edo tentsioa adierazten badit... Sufrimendu hitza ez dut erabiliko, baina gaizki pasatzen dut nire ikasleak lehiatzen ikusterakoan; bikote asko dauzkat, eta luze egiten zaizkit txapelketak. Nahiago neuk dantzan egitea, besteak hor ikustea baino. Irakasle zorrotza naiz, baina txapelketa bat bukatu berritan sekula ez dizkiet akatsak-eta aurpegiatzen ikasleei, ez dira ez unea, ez modua; eskolara itzultitakoan esango dizkiet zuzendu beharrekoak, baina modu eraikitzailean.

Zuek ibiltzen zineten garaitik asko jaitsi da parte hartzea txapelketetan. Irakasleenaz gain, ba al dago beste arrazoirik?

Ikasleek gero eta gazteago uzten dute dantza, eta hori eskolaz kanpoko ekintzengatik dela uste dut. Beti egon izan dira eskolaz kanpoko aktibitateak, baina gaur egun aukera are zabalagoa da. Musika eskola, ingelesa edo frantsesa, pilota, saskibaloia, futbola... kirol guztiak. Azpeitian, futbolak eta saskibaloiak betidanik izan dute indar handia; pilotak, garai batean ez horrenbeste, baina gaur egun, bai. Dantzak ere eskolaz kanpoko eskaintza

zabal horren barruan kokatzen dira, baina jendearen joera da dantza neskena dela pentsatzea. Nire eskolatik pasatu dira Lagun Onaken, Anaitasunan edota Realean ibilitako jokalaria, futbolari oso onak izandakoak; eta saskibaloian oso ondo moldatzen ziren Iraurgiko jokalaria ere bai. Esan nahi dut, dantzan ibilitako jendea kirolean ere oso-oso ona izan dela. Ez diot nik, entrenatzaileek esan izan dute. Dantza terapia bat ere badela uste dut nik, eta masajistek esaten dute dantza dela kirolik osoena; ehun metro lauekin alderatzen dute batzuek. Dantzan hankak eta eskuak mugitzen dituzu, eta gainera, burua ere lantzen duzu; koreografiak ikasteko, lan handia egin behar duzu buruarekin, denbora tarte txikian aldaketa asko daudelako, eta sarritan, segundo bat besterik ez duzu hurrengo mugimenduaz akordatzeko eta hura gauzatzeko. Oso terapeutikoa da dantza. Ume zein heldu, badago ezkerra eta eskuina bereizteko zailtasunak dituen jendea, eta dantzan hasitakoan ikasten dute ondo bereizten. Guztia kontuan hartuta, dantzak gorputz hezkuntzan sartu beharko lituzketela iruditzen zait.

Helduei ere irakasten dizkiezu euskal dantzak. Zer moduz?

Oso gustura. Egundoko hartu-emana daukagu, eta oso esperientzia politak bizi izan ditugu. Duela



Necoechean (Argentina), ikasle helduen taldearekin egindako emanaldian. UTZITAKOA

**"EZ DAUKATE ZERIKUSIRIK TALDEAN
ARITZEAK ETA TXAPELKETETAN
BIKOTEAN ARITZEAK"**

**"TEKNIKOKI ONENA IZAN ZAITEZKE,
BAINA NIRI AURPEGIAK EZ BADIT
EZER ADIERAZTEN..."**

**"ZORROTZA NAIZ, BAINA IKASLEEI
SEKULA EZ DIZKIET AKATSAK LEHIA
BUKATU BERRITAN AURPEGIRATZEN"**

sei urte, esaterako, Argentinan izan ginen, Necoechean, eta batere espero ez genuela, egundoko arrakasta izan zuen gure emanaldiak. Negarrez bukatu genuen agertokian, hunkituta, jende guztia zutik guri txaloka ikusita. Azpeitian eta Zestoan ere urtero egiten ditugu emanaldiak, Napar Zuzterrak taldekoekin. Ikasberriko gurasoei dantzak ematen hasi nintzen ikastolaren eraikina eraikitzen hasi baino bi urte lehenago. Hasieran egundoko ibilerak egin genituen, ikastola banatu berriko garaiak ziren. 28 urte joango ziren honezkero, eta gaur egun ere jarraitzen dut. Hasierakoak uzten joan ziren, beste batzuk sartzen joan dira, Ikasberrikoak eta Ikasberrikoak ez direnak. Orain mutxikoak erakusten dizkiet, gehienbat. Astelehen eta asteazken iluntzetan elkartzen gara, eta une honetan 20-21 lagun dabilta taldean. Aurten guraso gazte batzuk hasi dira, baina gehienak 60 urtetik gorakoak dira. Askok esaten didate terapia bat dela berentzat, bururako zein gorputzerako.

Inoiz pasatu al zaizu burutik dantza uztea?

Ez. Beti esan izan dut hankak ondo dauzkadan bitartean dantza eskolak ematen segituko dudala, hori argi daukat. Alde batetik, gaur egun nire ogibidea delako; eta bestetik, poz asko ematen dizkidalako. Amorruek ere ematen dizkit, baina pozak gehiago dira, zalantzarik gabe. ■■■

Blai, hiru hamarkadaz

Ospakizunetarako motiborik ez zaio falta Zubiaurre igeriketa klubari. Urteurren borobila ospatu dute aurten, eta hainbat izan dira azken urteetan klubari esker igerian hazi eta hezi diren azkoitiarrak. Beste horrenbeste urte betetzeko indarrak ez zaiela falta erakutsi dute. Atzera begira jarri ditu Maxixatzenek.

Testua: **Anartz Izagirre.**
Argazkiak: **Anartz Izagirre**
eta utzitakoak.

Eroriz ikasten omen da oinez, eta Zubiaurre igeriketa klubak igerian ikasi du bere akatsetatik nahiz lorpenetatik. Ikasturte honetan hiru hamarkada bete dira igeriketa kluba sortu zutenetik, eta joan zen urrian egitarau oparo batekin ospatu zuten urtemuga, festa giroan. Behinola ur tanta zena, itsasoa da orain, eta motxila bete ikaskuntza daramate taldeko kideek soinean; hazten jarraitzeko ilusioz daude.

Datuek erakusten dute, gainera, Zubiaurren osasun ona. Egun, 225 pertsonaren kudeaketaz arduratzen da igeriketa kluba, eta gutxi gorabehera, 135 familiatako kideek parte hartzen dute taldean. Pablo Dominguez klubeko batzordekidearen arabera, "urtez urte handitzen" joan da elkarte, eta azken urteetan talde nagusia ez da 40 lagunetik jaitsi. "Kopuruak oso altuak dira; klubak bere xumetasunean xume izaten jarraitzen du, baina bolumenean asko handitu da". Haren arabera, klubaren xedea da "herritar guztientzat uretan egiten diren ekintzen erdigune izatea eta horren gozamenerako aukera piztea".

Azken 30 urteetan hainbat izan dira modu batean edo bestean klubaren parte izan diren pertsonak, eta ur azpiko jarduna nahiz klubaren barrunbeak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte taldeko lehen entrenatzaile izan zen Mari Jose Sanchezek (Azkoitia, 1969), klubaren lehen egunean ikasle izan zen Maite Urrutiak (Azkoitia, 1983), zortzi urtez entrenatzaile lanetan aritu zen Alazne Esnaolak (Azpeitia, 1974) eta Zubiaurren entrenatzaile lanetan bi hamarkadatik gora daramatzen Alex Herrero (Deba, 1976).



Egun klub izaera du Zubiaurrek, eta hainbat txapelketatan lehiatzen dira taldeko igerilariak. Hasieran, ordea, oso bestelakoa zen egoera. "Igeriketa klaseak ematen hasi nintzen 1991n, eta ikastaroak amaitu ostean, ikasleen gurasoek zera esaten zidaten: 'Ez al dago jarraitzeko modurik?', dio Sanchezek. Elkarte bat sortzeko eskaria "gero eta handiagoa" zen denborak aurrera egin ahala, eta Azkoitian aukerarik ez zutenez, txapelketetan lehiatzeko Azpeitiko Izarraitz igeriketa klubera jo behar izaten zuten azkoitiarrek. Hala, Zubiaurre kluba sortu zuten. Urrutiak ondo gogoan ditu lehen egunak, 7-8 urte inguru besterik ez zituen arren. "Lehenengo egunean proba bat egitera joan ginen; aurreraka 25 metro egin behar izan genituen, eta ondoren, atzeraka. Akordatzen naiz igerilekuaren erdian gelditu nintzela nahikoa zela erabaki nuenean", dio barrez.

Igerilekua homologatu beharra

Zubiaurre eratzea ez zen nahikoa izan herritarren beharrei erantzuteko, eta urte batzuk lehenago inauguratutako igerilekuak ez zeuden homologatuta igeriketa txapelketak hartu ahal izateko. "Aisialdirako igerilekua zen. Igerileku berbera mantendu da sortu zutenetik gaur arte, baina hasieran ez zegoen tranpolinik, ikasleek saltoak egiten-eta ikas zezaten". Esnaolak eta Herrerok gogoan dute igerilekuan anabasa zela nagusi. "Kaleetan ez zegoen kortxo-ilararik, eta orduan, jendea batetik bestera ibiltzen zen igerian. Jendeari apur bat kostatu zitzaion ohitzea", azaldu du Esnaolak. Baietz esan du Herrerok: "Klubak 10 urte

Zubiaurreko igerilariak, artxiboko irudi batean.



Zubiaurreko hainbat kide, artxiboko irudietan.

bete ostean hasi nintzen ni Azkoitiko igerilekuan lanean; hasieran, sorosle moduan. Bi kortxo-ilara bakarrik zeuden garai hartan, eta jendea libre ibiltzen zen igerian".

Homologazio ezak hainbat konplikazio sortu zizkion klubari. "Talde moduan lehiatzera joaten ginen beste herrietako txapelketetara, baina guk ez genuen igerileku egokirik txapelketak antolatzeko.

Gainontzeko klubek homologazioa lortzen saiatu behar genuela esan ziguten, eta azkenean lortu genuen", azaldu du Sanchezek. Behin hori lortuta, aurrerago espazio urritasuna bilakatu zen klubaren buruhauste nagusia: "Jendea gehitzen ari zen elkartera, eta ez genuen lekurik igerilekuan. Bi kale soilik ematen zizkiguten, eta lortu genuen entrenamenduak eguerdietara pasatzea eta igerileku osoa guretzat izatea". Herrerok dio bost kaleko igerilekua "estutu" egiten zutela, eta sei kale atera, entrenamenduetan jende gehiago sar zedin. "Eta hala eta guztiz ere larri ibiltzen ginen", gaineratu du.

Ikasleen kopurua, gorantz

Futbolak eta saskibaloiak Azkoitian zein inguruetan duten indarragatik, klubeko kideen joan-etorria handia izan da, baina hala ere, ez dute kide faltarik izan taldean. "Lehen jendeak errazago uzten zuen igeriketa futbolean aritzeko, eta orain, bi kirolei eusten saiatzen da", esan du Esnaolak. "Malgutasuna" izan da Herreroren arabera jendea klubean mantentzeko gakoetako bat: "Ikasi genuen ezin dugula aukeraketa bultzatu. Igerilariei hala esaten genien: 'Hemen beti titularra izango zara'. Era batera edo bestera jendea Zubiaurren gera zedin lortu behar genuen". Era berean, jendeak igeriketan "bere lekua" topatu duela ere uste du Herrerok. Momentu batzuetan jende gehiago behar izan dute, batez ere txapelketetan lehiatu ahal izateko, baina beste batzuetan, muga jarri behar izan dute inskripzioan: "Urte batzuetan *numerus clausus* jarri genuen igeri eskolan, ez zelako bideragarria lehen urtean hainbeste umek izena ematea". Urte hauetan guztietan egindako lanaren emaitzak ere igarri dira sailkapenetan, eta Herrerok erreleboen sailkapenak nabarmendu ditu; iaz, lehen aldiz, nesken errelebo talde bat Espainiako Txapelketara sailkatu zen.



Denak bat datoz sorreratik hona klubak berebiziko bilakaera izan duela esatean, baina urte guztietan zehar "familia giroa" mantendu dutela azpimarratu dute. Hala dio Urrutiak: "Ume garaian nire bizitza zen kluba. Lagunarte bat nuen bertan, beharbada ikastolakoekin edo adineko jendearekin ez nuena. Akordatzen naiz igeriketa utzi nuenean aspertu egiten nintzela". Orain, bestelako harremana du Urrutiak klubarekin: "Semea igeri egiten hasi zen duela pare bat urte, eta batzordeko kidea naiz. Ni igeriketan ibili nintzenean nire aita batzordean egon zen, eta nik orduan jaso nuena orain eman egin behar nuela ikusten nuen. Erantzukizun moduko zerbait sentitu dut". Sanchezek argi du gurasoak izan direla urte hauetan kluba mantentzearen giltzarria: "Zubiaurre ikasleen gurasoengatik sortu zen; haiek eman dute kluba aurrera".

Orain arteko ibilbideaz ahaztu gabe, aurrera egiteko pronto dago Zubiaurre, eta igerileku berria da, guztien esanetan, hurrengo pausoa. "Ilusio hori daukagu, beste era bateko zerbitzua eman ahal izateko herritarrei. Proiektua egon badago, eta hori egiteak aukera asko zabalduko lituzke Zubiaurrerentzat", dio Urrutiak. Hortik haragoko anbizioak ere baditu elkarteak, Herrerok dioenez: "Zubiaurrek buruan eta filosofian darama igerilekuan egiten diren jarduera guztiak bere gain hartzeko ideia". Formatzen ere badabiltza: "Aurten behar bereziak dituzten haurrekin lan egin ahal izateko ikastaro bat egin dugu, zerbitzu hori eman ahal izateko".

Urte zelegeak izan dira azken hirurak Zubiaurre klubarentzat. Izan ere, izurriak goitik behera aldatu ditu, besteak beste, txapelketak. Horren erakusle da, esaterako, aurten bi aldiz egin dutela San Andres igeriketa saria; ekainean iazkoa, eta azaroan aurtengoa. Garaia ezohikoak izanagatik, ospatzeko motiboak ere izan dituzte aurten urteurren berezia tarteko, eta aurrera begirako ikuspegia dute klubean, hutsigeteetatik zein lorpenetatikikasten eta hazten jarraitzeko, betiere, uretan bada hobeto, estilo librean. ■

Ezkerretik eskuinera, Alex Herrero, Alazne Esnaola, Mari Jose Sanchez eta Maite Urrutia.

HERRERO: "URTE BATZUETAN 'NUMERUS CLAUSUS' JARRI GENUEN IGERI ESKOLAN"

SANCHEZ: "ZUBIAURRE IKASLEEN GURASOENGATIK SORTU ZEN; HAIK EMAN DUTE AUERRERA"



NON DAGO ZAKELMARI?



Azaroko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 29. orrialdean zegoen ezkatututa. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Milagros Abarrategi** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi laguntzako tarta**. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txeketa zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna abenduaren 16a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo **erredakzioa@maxixatzen.eus** helbide elektronikora.

ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

ESKAINTZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behe • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK



Atari digitalak



Telebista

02



Estrategia eta
planifikazioa

03



Komunikazio
kanpainak

04



Eduklen
sorkuntza

05



Webguneak eta
marketin
digitala

B

K

erlo



KH

nn

Zh

"Brasilgo musikak lagungu dit doinuei nortasuna ematen"

JORGE ARZALLUS 'JORGINHO' MUSIKARIA

Jorge Arzallus 'Jorginho' azkoitiarrak gaztetan eman zituen aurreneko pausoak musikagintzan, eta Hego Amerikara egindako bidaia bere estiloa aurkitzeko eta bide berri bati ekiteko abiapuntua izan zen harentzat. Bossa nova doinuei urrundu gabe, bigarren diskoa kaleratu du musikariak: 'Arte do encontro'.

Testua eta argazkiak: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Gitarrarekin eman zituen musikan lehen pausoak Jorge Arzallus *Jorginhok* (Azkoitia, 1970). Lagunei zein ezagunei akordeak eskatzen aritzen zen, orduan ez baitzegoen gaur egun adina erraztasun gitarra ikasteko. Gerora, Uztauek musika taldea sortu zuen bailarako lagun talde batekin. Talde hartan eman zituen musikaren munduko lehen pausoak, pop zein rock estiloak landuz. Azken urteetan, berriz, bakarkako bidea hartua du azkoitiarrak, eta bere egunerokotasunaren parte bihurtu da musika: "Etxean denbora asko igarotzen dut gitarra jotzen, kantuan, konposatzen, moldaketak egiten...". Izan ere, musikak bizitza "erraztu" egiten diola eta bizitza musikarekin "entretenigarriagoa" dela argi du.

Jorginhoren musika ezagutzeko eta ulertzeko, denboran atzera egitea ezinbestekoa da: 26 urte zituenean, Azkoitian zuen bizimodua albo batera laga eta Hego Ameriketara joatea erabaki zuen, hango lurrak ezagutzeko asmoz. Bi urte eta erdi igaro zituen han, eta azken urtea Brasilen pasatu zuen. Herrialde hartako musikarekin lotura handia izan zuen egonaldi hartan: "Asko erakartzen ninduen hango musikak". Are gehiago,

azken urteko egonaldiak eragin zuzena izan zuen beragan: "Nire doinuei nortasuna aurkitzen lagundu zidan Brasilgo musikak".

Aurretik ere jotzen zuen gitarra, baina erreferente zituen musikariak imitatu ohi zituen: "Ruper Ordorikaren zein Hertzainak taldearen kanten antzeko abestiak sortu ohi nituen". Hori horrela, oraindik ez zuen bere abestirik sortuta, hori "prozesu zaila" zela iruditzen baitzitzaion. Azkoitira itzuli zenean, orde, kantak sortzen hasi zen, bossa novaren melodietan. Orduan hartu zuen portugesez abesten hasteko erabakia. Kanta horien fruitua izan zen *Ametsen fabrika*, bere lehen diskoa. 2010ean argitaratu zuen lana, eta Azkoitiko zein Azpeitiko musikarien laguntzaz grabatu zuen. Diskoa portugesezko, euskarazko zein ingelesezko hainbat kanteekin osatu zuen, eta pare bat urtez aritu zen kontzertuak eskaintzen. Alabaina, ordutik bere etxeko estudioan aritu da kantuak grabatzen. Kanta berri asko sortu ditu azken urteotan, baina ez disko berri bat grabatzeko helburuarekin, gustatu egiten zaiolako baizik.

Lehen disko hartatik hamabi urtera, itxialdiaren garaian ordu askotan etxean egon beharra medio, buru-belarri hasi zen musika sortzen, eta horrez





gain, etxean duen estudioan grabaturiko kantak moldatu zituen. Orduan egindako esfortzuaren eta eskaintako denboraren fruitua da udan kaleratu duen bigarren diskoa: *Arte de Encontro*. Kantu berriek zein duela urte batzuk grabatu zituen zazpi abestik osatzen dute diskoa. Abesti guztiak portugesez konposatu ditu, eta denak daude bossa nova doinuetatik hurbil. Beraz, lanak argi islatzen du Brasilgo musikak Jorghinorengan duen eragina. Diskoa osatzerakoan, zailena "kantu batzuk diskotik kanpo uztea" izan dela azaldu du azkoitiarrak.

Tarragonako (Katalunia) George Five ekoiztetxearekin harremanetan jarri zen bigarren diskoari forma emateko. Han egin zituen



diskoaren eta ahotsaren grabaketak, eta hango musikarien laguntzaz osatu du lana. Ekoiztetxeak egindako aldaketak medio, "musika modernoaren kutsua" du lan berriak, Arzallusen hitzetan: "Disko hau eguneratuagoa da, kantuak laburrak eta zuzenak dira, elementu berriak daude eta ez dago betelanik". Aurreko diskoarekin alderatuz gero, aldaketak nabariak dira, azkoitiarraren esanetan: "Abestien iraupenari erreparatzea besterik ez dago; lehengo abestiek lau minutu irauten zuten; oraingoez, hiru minutu gehienez".

Jorge Arzallus

- **Adina:** 52 urte.
- **Ikasketak:** Akupuntura eta osteopatian diplomatua.
- **Lanbidea:** Akupuntorea eta osteopata.
- **Musikaria ez banintz...** margolaria izango nintzateke.
- **Kantatzea amaitutakoan...** liburu bat irakurtzea edo paseora irtetea gustatzen zait.



Abestiak, askotan, hitz bat bururatu eta "hari jarraika" sortu izan dituela azaldu du, testuak nondik datozen zehazten jakingo ez lukeela dioen arren. Gitarra hartu eta nota batetik bestera ibili ostean, melodiaren gainean hitzak jarri ohi ditu musikariak. Lanaren izenarekin, bestalde, zenbait gorabehera izan zituela esan du Jorghinok: "Hasieran beste izen bat izan behar zuen, baina azken orduan erabaki nuen *Arte do encontro* jartzea; transmititzen zidana gustatu egin zitzaidan".

Diskoa fisikoki ez kaleratzea erabaki du azkoitiarrak, gaur egun dauden aurrerapenekin ez baitio hala egiteari zentzurik bilatzen:

"Lehengo batean, lagun bati disko bat eman nion, eta hark erantzun zidan kotxean musika *bluetooth* bidez entzuten zuela. Horrekin argi geratu zitzaidan diskoak ez zuela indarrik izango". Hala ere, plataforma digital guztietan dohainik dago entzungai: Spotifyn zein Youtuben, besteak beste.

Kontzertuei dagokienez, berriz, musikariak "hasieratik" garbi izan du ez duela zuzenekorik eskainiko, horrek eskatzen duen esfortzuagatik: "Denbora asko eskaini behar zaie kontzertuei: musikoak aurkitu behar dira, entseguak egin, kontzertuak lortu eta beste mila gauza".

Portugesez, bere estiloan

Azkoitiarrak portugesearekin duen lotura zuzena argi islatzen da sortzen dituen abestietan zein diskoetan, eta musikariak ondo gogoan du zenbat pertsonak galdetu izan dioten zergatik kantatzen duen hizkuntza horretan. Azalpena garbia da: "Hego Ameriketatik bueltan, portugesez entzuten nuen musika gehiena; behin eta berriz egiten nuen, eta hori da portugesez konposatzearen arrazoia".

Ez da portugesa, ordea, Arzallusen ama hizkuntza, eta horregatik, musikariak barrez aitortu du batzuetan hiztegia begiratu behar izaten duela. Hala ere, portugesari eta bossa novari esker, bere kantuak "imitazioak ez" direla azpimarratu du. Izan ere, euskaraz abesterakoan, "nahi gabe" bere erreferenteak antzeratzeko arriskua ikusten zuen.

Edonola ere, gitarra jotzea zein abestea gozagarri bezain lagungarri dira Arzallusentzat. Izan ere, melodiak zein letrak sortzeak gozamena emateaz gain, barruan gorderiko buruhaustek uxatzen laguntzen dio maiz. Musika sortzearen helburua zein den argi du Jorghinok: "Nik gozatzen dudan gisan, jendeak ere goza dezan sortzen dut musika". ■■■

bertako-REKIN BAI!

logalduak | ascensores

GIPUZKOA

943 903 450

ORDTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baitetz mantentze-lan profesionalari
- Baitetz benetako 24/7/365 zerbitzuari

www.bertako.eus



Joan-etorria

Horra trenari: goian badao, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Bakoitzari berea

Pertsone hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



Handienetik txikienera

Ordene itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienera 8 emanaz.

Sudokua




Trenari BULTZI ere esaten zitzaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lehen, zutabe eta ordea bakoitzeko.



Itzala

Ui... Trena
galduko duela
ematen du,
baina zein
da bere itzal
zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkerrean doa. 2) Bi txantxangarri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

'Árbitro comprado'



JOSE RAMON ARANBARRI

Larunbat goiz batean, futbol zelai batean, 2008-2009an jaiotako haurren futbol partida bat ikusten ari nintzen. Partidako jokaldi batean, epaileak hegaleko sakea agindu zuen talde baten alde, eta, bat-batean, nire atzean oihu bat entzun nuen: "*Árbitro comprado*". Oihua zelaitik kanpo zegoen adineko emakume batena izan zen; barrea eragin zidan, baina, aldi berean, gogoeta ere bai.

Edozein txapelketatan, izan futbola, saskibaloia edo judoa, epailea iraintzea edo epaileari oihukatzea ohitura da; horretara ohitu gara eta normaltzat jotzen dugu, baina aldi berean kezkarria ere bada, errespetu falta nabari baitzaio.

Pertsona batek haurra denean ikasten du heldua izaten, eta helduok haurren nortasunaren forjatzaileak gara. 12-13 urterekin, haurrak beren nortasuna sortzen eta garatzen hasten dira, eta beraz, oso moldagarriak dira. Guk, pertsona heldu bezala, beraiekiko dugun erantzukizuna handia da. 12-13 urteko haurren arteko lehiaketetan ez luke garrantzitsua izan behar irabazteak edo galtzeak, nahiz eta batzuentzat garrantzitsuena hori dela dirudien; adin horietako haurrei errespetua, hezkuntza eta kiroltasuna bezalako balioak irakastea izan beharko luke helburua.

Haurrak belakiak bezalakoak dira, eta ikusten eta entzuten duten guztia xurgatzen dute; ondorioz, gure jarrerak eragin handia dute beren jokabidean. Haurrek helduei ikusten eta entzuten dietena egiten dute, eta ikusi eta entzun dutenaren arabera jokatzen dute. Egungo haur horiei, helduak direnean, nola eskatuko diegu errespetua, ez badiegu hori irakatsi umeak direnean? Nola eskatuko diegu edukazioa, iraina gauza normala eta egunerokoa dela irakatsi badiegu? Irakasten ari garen jokaerekin, nolako nortasuna garatuko dute haur horiek?

Gipuzkoako herri batean izan nuen nire lehen esperientzia profesionala. Han, lanean urte asko zeramatzaten lehen mailako bi sendagilerekin egin nuen topo: Antton eta Pedro. Ni gaztea nintzen, eta beraiek helduak; ni hasiberri baten ilusioarekin nengoen, eta beraiek denbora asko zeramaten lanean. Gauza asko ikusitakoak eta pasatutakoak ziren, eta denetik bueltan zauden; beraz, gure ikuspuntuak oso kontrakoak ziren eta talka egiten zuten.

Bizitzak eraman ninduenean medikuntza ibai ertzaren beste aldetik ikustera eta leku horretatik lan egitera, bazkari batean honako hau bota zidaten: "Ez saiatu gu zuzentzen, gu zuhaitz oker bat bezalakoa baikara. Molda itzazu gazteak, jar iezaiezu enborrean makila, zuzen hazteko, horretarako aukera baitute; gu, aldiz, makil asko jarrita ere, zuzengaitzak gara; ez galdu denbora alferrik gurekin".

Haur bat zuhaitz bat bezalakoa da, eta gure esku dago, helduon esku, zuzen haztea eta bidean ez okertzea. Ume direnean irakasten ez dieguna, ez dute ikasiko helduak direnean. Helduak direnean Pedro eta Antton bezalako zuhaitz okertuak izango dira, eta ezingo diegu irakasten jakin ez ditugun errespetua eta balioak izaterik eskatu. ■■■

**HAURRAK BELAKIAK
BEZALAKOAK DIRA, ETA
IKUSTEN ETA ENTZUTEN
DUTEN GUZTIA
XURGATZEN DUTE**



"ELKARGUNEA"

"Laguntza behar duten adinekoengana iristen jarraitu nahi dugu"

BAKARNE ETXEBERRIA HURKOA FUNDAZIOAREN HAUSKOR PROGRAMAKO KOORDINATZAILEA

Hurkoa fundazioaren programetako bat da Hauskor, eta haren koordinatzailea da Bakarne Etxeberria. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin eta inguruko beste zenbait eragilerekin kolaborazioan, gizarte hauskortasun egoeran aurkitzen diren adineko pertsonak atzematea eta artatzea da programaren helburua.

Testua: **Andoni Elduaie**n. Argazkiak: **Andoni Elduaie**n eta **Azkoitiko Udala**.

Hurkoa fundazioaren Hauskor programaren koordinatzailea da Bakarne Etxeberria (Donostia, 1969). 2017an ireki zuen Hurkoa fundazioak egoitza Azkoitian, plazan. Hauskor programa, berriz, hiru urte beranduago jarri zuten martxan herrian, gizarte hauskortasun egoeran aurkitzen diren adineko pertsonak atzemateko eta horiei baliabide sozialak nahiz komunitarioak emateko. Arrasaterekin eta Pasaiarekin batera, Azkoitia da Hauskor programa indarrean duen Gipuzkoako hirugarren herria. Etxeberriak programaren xehetasun guztiak mamitu ditu, baita Azkoitiko egoera zein den azaldu ere.

Gizarte hauskortasun egoeran dauden herritarrek artatzen ditu Hurkoa fundazioak Azkoitian. Zer esan nahi du pertsona bat gizarte hauskortasun egoeran egoteak?

Oro har, adinekoek familiatik jaso ohi dute laguntza eta babesa. Gizartean eman diren aldaketekin, ordea, edonori gerta dakioke laguntza sare hori ez izatea, edota izanda ere, sare ahula izatea. Hori da gure programarentzat gizarte hauskortasun egoeran egotea. Pertsona batek ez du erantzukizunik edo errurik bere burua egoera horretan aurkitzen delako, eta garrantzitsua da hori; izan ere, guztiok ulertu

behar dugu bizitzako unereren batean denoi suerta dakigukeela laguntza behar izatea.

Behar horri erantzuteko sortu zenuten Hauskor programa, eta martxan da Azkoitian.

Gizarte hauskortasun egoeran dauden adinekoekin lan egiten dugu. Egia da, gazteak ere egon daitezkeela egoera horretan, baita buruko gaixotasunen bat duten pertsonak ere. Hauskor programan, ordea, 65 urtetik gorako herritarrekin egiten dugu lan. Pertsona horiek beren bizitza egiteko autonomia izan ohi dute, eta erabakiak hartzeko ere gai izaten dira. Halere, arrazoi bat edo beste tarteko, gizarte sare ahula duten pertsonak artatzen ditugu edota laguntza sarerik ez duten adinekoak. Adineko batzuek, etxea egoera egokietan mantentzeko behar izaten dute laguntza, eta beste batzuek, gizarteko zenbait premiari erantzuteko. Inguruan dauden ekintzetan edo herriko bizitzan parte hartu gabe ere gelditzen dira zenbait, edo pertsona horiek ez dute beraientzat zeharo esanguratsua den harreman bat egiteko aukerarik izaten. Horrek guztiak isolatzera eta bakartzera eramaten ditu pertsona horiek, eta hain zuzen, horri erantzuteko jaio zen Hauskor programa.

Nola egiten duzue lan fundazioan?

Hurkoan hauskortasun egoeraren inguruko interesa sortu zen, eta askotariko azterketak nahiz ikerketak egiten hasi ginen. Ikusi genuen,



prebentzioaren begiradatik, zentzua zuela udaletxeetan-eta adinekoen zaintzan aurretiazko esku hartzeak. Azkoitiko Udalak gaiaren inguruko interesa erakutsi zuen, eta lanean hasi ginen. Mendetasun egoerara iritsi aurretik hauskortasun egoeran dauden adinekoei laguntasuna emanda, pertsonaren autonomia bultzatu eta haren bizi kalitatea hobetu daitezke.

Zein da Hauskor programak artatzen dituen pertsonen profil orokorra?

Programak artatu ohi dituen pertsona gehienak emakumeak dira; gizonak baino nabarmen gehiago dira emakumeak. Guztiak 65 urtetik gorakoak izaten dira; batez besteko adina 81 urtekoa da.

Zein dira programaren helburuak?

Gizarte hauskortasun egoeran dagoen pertsonaren profila kontuan hartuta, programak

hiru helburu ditu. Lana indibidualki egiten da, baina, era berean, komunitatera begira ere bai. Batetik, gure nahia da bakarrik daudenei laguntza eskaintzea. Laguntza mota horren adibideak asko dira, esaterako: adinekoak beste pertsona baten laguntza behar izatea udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskaintzen diren baliabideetara iristeko; bizitzako eguneroko ohiturak egokitzeko orientaziorako, norberaren zaintza antolatzeke eta medikuaren zein botiken jarraipena modu egokian egiteko laguntza eskaintzea; edota etxea egoera egokian mantentzeko kudeaketan laguntzea. Kasu horiek adibideak besterik ez dira, baina programaren teknikariak [Maialen Artetxe da Azkoitiko teknikaria] bide horiek guztiak errazten laguntzen du, baita bestelako erreferentziazko informazioa eskaini ere. Adineko pertsona bat eginkizun horiek betetzeko gai ez

badu, eta gainera, egunerokoan laguntza sare hori ez baldin badu, ahultasun eta ziurgabetasun handia izan dezake.

Horrez gain, komunitatera begira egiten dugu lan. Hauskortasun egoeran dagoen pertsona ezagutu eta harekin harremana egin ondoren, Hurkoako teknikariak jakin egin behar du herrian zer gertatzen den, zer antolatzen den eta zer bizitza dagoen. Hark herriko ekintza horietara gerturatzen lagunduko dio hauskortasun egoeran dagoen eta laguntza behar duen pertsonari. Esate baterako, udaleko Arreta Zentrora joaten lagunduko dio, jubilatuen elkarteak antolatutako ekintzetan parte hartzen ere bai, edo Pasira programara gerturatzen. Programaren hirugarren adarra detekzioa da. Horretarako, ordea, bidelagunak behar ditu programak. Komunitatean dauden taldeekin, entitateekin eta erakundeekin lanean jarraitzea da asmoa, lan hori gehitu eta ugaltu dadin.

Ari al zarete helburuak betetzen Azkoitian?

Lanean ari gara, programa indartzen ari da eta; eragina, behintzat, ari gara izaten. Era berean, garrantzitsua da udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera lan egiten dugula azpimarratzea. Gu ez gara etorri Azkoitira lana modu isolatuan egitera; beharrezkoa da udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritzea. Hasiera-hasieratik eman zioten proiektuari oniritzia udalak eta udaleko Gizarte Zerbitzuek, eta sare lana zein elkarlana egiten dugu estrategia horren barruan. Egun, Gizarte Politiketako estrategia zera da: adinekoak ahalik eta denbora gehien igarotzea beren etxearekin eta komunitatearekin, auzoarekin nahiz herriarekin loturan. Izan ere, horrek ematen du bizi kalitatea. Udalaren estrategia hori da, udaleko Gizarte Zerbitzuek hori bermatzen dute, eta gure programa ildo horrekin bat dator.

Gizarte hauskortasun egoeran egon daitekeen pertsona baten adibide txikiak eman dituzu. Nola egikaritzen dira eginkizun horiek guztiak Hauskor programaren bidez?

Bereizi egin behar dira autonomia duen pertsona eta menpekotasuna duena. Hauskor programan gizarte sare ahula edo sarerik ez duten adineko pertsonekin lan egiten dugu, eta oro har, horiek autonomoak izan ohi dira. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara kasu bat iristen denean, teknikariak eta gizarte zerbitzuetako langileak Hauskor programa aurkeztzen diote artatu behar duten pertsonari. Adinekoak programan parte hartzea onartzen badu, teknikariaren lana izaten da pertsona horrekin konfiantzazko lotura eraikitzea

eta hari gertutasuna ematea. Teknikaria adinekoa ezagutzen hasten da gero; ekintza instrumentaletan dituen premiak, nahiak, desirak eta haren sare soziala nolakoa den ezagutuko ditu. Poliki-poliki pertsonaren egoeraren balorazioa egiten da, eta identifikatzen diren premien arabera ematen zaio laguntza. Adinekoari udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera aurkeztzen zaio zer-nolako laguntza emango zaion, eta poliki-poliki prozesua gauzatzen hasten da. Pertsonaren arabera, laguntza era batekoa edo bestekoa izan ohi da, noski. Hasiera batean intentsitate handiko esku-hartzea behar izaten da, baina gero, beharbada, adinekoak ez du behar intentsitate maila horretako laguntza jasotzea. Bereziki, eguneroko ekintza instrumentaletan laguntzen zaio adinekoari, baita komunitatearekin loturak egiten ere.

Teknikariak eskaintzen duen laguntza etxeko laguntzaileak eskaintzen duenarekiko desberdina dira. Etxeko laguntzaileak bestelako funtzio batzuk ditu, eta hori ez dugu Hauskor programan lantzen. Iruditzen zait garrantzitsua dela profilak bereiztea. Izan ere, desberdina da eguneroko oinarritzko ekintzak egiteko gaitasunik ez izatea. Horrek menpekotasunarekin du zerikusia, eta laguntzaile baten esku hartzea nahitaezkoa da. Aldiz, guk ekintza instrumentaletan eragiten dugu, horiek kudeatzen eta planifikatzen.

Intentsitate kontua aipatu duzu. Laguntza jasotzea onartzen duenak kasu puntualetarako eskatzen du edo denbora luzerako?

Gehienetan denbora luzerako izaten da. Jarraipena egiten zaio beti pertsonari, baina premiaren arabera, ez da bera izaten laguntzaren intentsitatea. Dena den, telefono deiak eta bisitak beti egiten dira adinekoari jarraipena egiteko. Hasieran, normalean, intentsitatea handiagoa izaten da, baina laguntzeko elementuak martxan jarri orduko jaitsi egiten da intentsitatea. Are gehiago, helburua intentsitatea jaitea da, bestela ez genukeen-eta gure lana ondo egingo. Hala eta guztiz ere, artatutako pertsonak badaki beti Maialen alboan izango duela laguntzeko.

Nola detektatzen dituzue hauskortasun egoeran dauden pertsonak?

Gure onuradunen kopuru handiena udaleko Gizarte Zerbitzuetatik iristen da, baina baita osasun arlotik ere, eta hori oso iturri interesgarria da. Gizarte Zerbitzuetan datu



Etxeberria, udaletxean egindako aurkezpen batean.

"UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEKIN BATERA EGIN DUGU LAN HAUSKOR PROGRAMAN"

"TELEFONO DEIAK ETA BISITAK EGITEN DITUGU BETI ADINEKOARI JARRAIPENA EGITEKO"

"HAUSKORTASUNAK, BAKARDADEAK ETA LAGUNTZA BEHAR IZATEAK ESTIGMA HANDIA DUTE ORAINDIK"

desberdinak izan ohi dituzte, erroldatik eta iturri desberdinetatik jasota. Dena den, gure programaren barruan badugu lan ildo bat, eta asmoa da gizartean zainketaren sare sozial hori indartzea. Herritar bezala, adinekoen zaintzaren begirada soziala areagotu nahi genuke. Sare horrek indartzen joan behar du, eta bide horretatik ere etor daitezke beste kasu batzuk, ondoren horiek udaleko Gizarte Zerbitzuetara bidera daitezkeenak.

Orain arte, gizarteak ez du joera handiegirik izan laguntza bide horiek eskatzeko. Urratu beharreko bidea da, ezta?

Garrantzitsua da herri txikietan Gizarte Zerbitzuei eduki dezaketen estigma kentzea. Laguntzeko daude, osasun arazo bat dugunean medikuak laguntzeko dauden bezalaxe. Berriro azpimarratu nahi dut: udalak arlo honetan duen estrategia adinekoak etxean mantentzea da, betiere herriarekiko zein auzoarekiko loturak sustatuz. Adinekoan nahia ere horixe da, baldintza egokietan etxean bizitzea. Hori egiteko programa egokia da Hauskor. Saiatzen gara artatutako pertsonarekin lotura egiten, gertutasunetik berme horiek guztiak posible egiten.

Hauskortasun egoerak murrizteko bidean, zertan eragin nahi du Hauskor programak gizartean?

Gizarte indibidualista honetan, familiaren funtzioak aldatu diren eta seme-alabek nahiz senideek atzerrira jotzen duten garai honetan, gero eta zailagoa da sare sozial horiek bermatzea nahiz laguntza eskaintzea. Nola ordezkari daiteke familiako sare soziala? Ordezka daiteke komunitatean elkartzeko eta laguntzeko guneak sortuz. Arlo indibidualean ez ezik, arlo komunitarioan ere egin daiteke lan, elkar laguntzeko eta gizartean sentsibilizazioa bultzatzeko. Era berean, estigmak edo aurreiritziak moduren batean landu egin behar direla iruditzen zait. Gizarte hauskortasunak, bakardadeak eta laguntza behar izateak estigma handia dute oraindik, eta horien kontra ere egin behar genuke lan.

Etorkizunera begira, zein dira programak dituen erronkak?

Behar duten pertsonengana iristea da asmoa, ondo iristea. Horien bizi kalitatean positiboki eragin nahi dugu, eta nola edo hala gizarteko agente desberdinen sentsibilizazioari heldu. Zaintza herrian eta etxean eman ahal izateko ekintzak sustatu nahi ditugu. ■■■



Marea zuria, beltzean

Hogei urte bete dira 'Prestige' petroliontzia Galiziako kostaldean hondoratu zenetik. Galizian eta Bizkaiko golkoan inoizko hondamendi ekologiko handiena eragin zuen ezbehar hark; galipotak sortutako marea beltza garbitzen aritu ziren milaka boluntario, eta horietako bi dira Jon Andoni eta Carlos Martin anaiak. Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Jon Andoni Martin 'Pegote'**.



Kiroldegia ostatu

Bi anaiak gauez iritsi ziren Muxiara, eta "jende mordoia" zegoela han gogoratzen dute. Antolaketa lotuta, "nahasmen handia" zegoela diote, ordurako militarrek hondamendiaren gunean baldin bazeuden ere: "Aurretik, kaos handiagoa egon zela uste dut". Zibilek zein militarrek elkarrekin egiten zuten lo herriko kiroldegian, eta Jon Andonik gogoratzen du "denetariko pertsonak" zeudela han: "Bazegoen lanera joana zen jendea, baina bazen bizimodua egitera joandakorik ere. Haserreak egoten ziren azken horiekin".

Muxiara, taberna utzita

2002ko azaroaren 19an hondoratu zen *Prestige* ontzia, eta 63.000 tona petroleo itsasoan barreiatu ziren. Galipotaren jarioak Costa de Morte inguruan eragin zuen kalterik handiena. Hango Muxia herrian izan ziren Jon Andoni eta Carlos Martin anaiak, beste milaka boluntarioekin batera, itsasertzean pilatutako fuel olioak garbitzen. "Otarre taberna emazteen esku utzi eta Donostiatic autobusez abiatu ginen Muxiara. Geldialdiz geldialdi, ia 24 ordutara iritsi ginen hara", gogoratzen du Jon Andonik. Lau egun igaro zituzten han.



Lonja, otorduak egiteko

Lonjan gosaltzen eta afaltzen zuten azkoitiarrek beste boluntarioekin batera — irudian, ezkerrean, Carlos—, eta bazkaria beraiekin eraman ohi zuten, fuela garbitzen ari ziren hondartzaren ondoan jateko. Galiziarrek ere ematen zieten jana: "Bertako asko ibili ziren guri laguntzen". Galiziarrek oso esker onekoak izan ziren boluntarioekin, baina baziren "amorrua" sorrarazi zieten hainbat herritar ere. "Zenbaitetan, inguruko herrietako herritar batzuk etorri izan zitzaizkigun, lanerako asmorik gabe, txapapotea non ikus zitekeen galdezka".



Kamioian sartu, eta hondartzara
Kiroldegian esnatu eta lonjan gosaldurik, herrian zegoen postu batera joan ohi ziren boluntarioak; egunero han esaten zieten zein hondartzatara joan behar zuten garbitzera. Segidan, boluntario taldea zegoen kamioian sartzen zen, eta militarrek eramaten zituzten horiek hondartzara. Azkoitiarrak adierazi duenez, itsasoaren marea guztiz baldintzatzen zuen boluntarioen jarduna, soilik marea behean zegoenean garbitu baitzezaketen eremua. Hondartzetan, itsaski biltzaileak ondoan izaten zituzten boluntarioek, eta haiek esaten zieten non ibili behar zuten tentuz, noiz atera itsasertzetik eta itsasoari inoiz ez emateko bizkarra.



Laguntzaren mila aurpegi

Laguntzeko hamaika modu zeuden, itsasertzea garbitzeaz haratago. "Ahal zuena" garbitzera joaten zen, baina besteek ere askotariko zereginak izaten zituzten: kozinatu, txukundu, herritarrei lagundu... "Boluntariook ere elkarri laguntzen genion, aurpegia garbitzen eta jan-edana zein zigarroak ahora eramaten. Izan ere, eskularruak oso mardulak ziren eta txapapotez zikinduta izaten genituen; ezin genuen ezer ukitu".



Ahal zutena...

"Ahal genuena kentzen genuen", azaldu du. Azkoitiarraren arabera, zenbait tokitan galipota ugari zegoen pilatuta, eta pauso bakarra ematea "izugarritzko lana" izaten zen boluntarioentzat, belaunetaraino iristen baitzitzaien hondakina. "Ezinezkoa zen guztia ondo kentzea. Gainean zegoena, lodiena, soilik kentzen genuen. Gainera, harri bat jaso eta galipota gehiago izaten zen han; ukitzen genuen guztia zen hondakina. Egoera tamalgarria zen".

Ahal zuten moduan

Boluntarioek eskuak zituzten itsasertzean pilatuta zegoen fuel olioia kentzeko lanabes, eta makilekin zein palekin ere aritzen ziren horretan: "Ahal genuen moduan egiten genuen". Eta zera gaineratu du azkoitiarrak: "Esaterako, egur zati batekin aritzen ginen garbitzen, eta orduak igaro genitzakeen txapapotez estalitako harria harraskatzen. Halere, han ez zen harriaren arrastorik ikusten".





Nora bota?

Jasotako galipota saskietan sartzen zuten boluntarioek, eta katea osatuz eramaten zituzten otarreak itsasertzetik lehorrera. Katearen amaieran, hondakina eramateko ibilgailu bat egoten zen batzuetan, baina ez beti. "Kamioia etorri arte edo kontainerra ekarri arte, askotan ez genuen jakiten nora bota behar genuen itsasotik ateratako hondakina; zelaian uzten genuen ibilgailuak etorri bitartean. Ez genuen plangintza zehatzik eta leku bat garbitu eta bestea zikintzen genuen. Dena den, galipota itsasotik ateratzea lortzen genuen behintzat".



Materiala, handik eta hemendik

Nazioarteko milaka pertsonen elkartasuna jaso zuen ezbehar hark, eta herritar askoren memorian iltzatuta geratu da marea beltzari aurre egiten aritu ziren jantzi zuridunen irudia. Azkoitiarrak zera idazten zuten beren buzo zurien atzealdean: "Azkoitiarrak Muxiarekin. Basque Country" –irudian, Carlos zutik, eskuinean-. Babeserako jantziak, eskularruak zein musukoak egunero aldatzen zituzten, eta oinetakoak, esaterako, ahalik eta gehien garbitzen zituzten egunaren bukeran, hurrengo egunean erabilgarri izateko. Bi azkoitiarrek etxetik eraman zituzten jantziak eta hainbat material, eta han utzi zituzten gero, ondoren joan zirenentzako.



Egoerak eragindako samina

Egoera samingarria zela gogoratzen du azkoitiarrak. "Egun osoa igarotzen genuen lanean, eta hondartza uztean, atzera begiratu eta aurrean genuen paisaia ikustean, ezer ez genuela kendu sentitzen nuen, ez zela eremu garbirik ikusten. Hainbeste hondakin zegoen kentzeko... Dena den, jasotako hondakin gutxi hori, behintzat, ez zuela itsasoak eramango ere pentsatzen nuen".

Erantzukizun eske

Fuel tonek aurrekaririk gabeko kalte ekologikoa eragin zuten kostaldean eta itsasoko faunan eta floran. Hondamendi hark, era berean, Galizian inoiz izan den mugimendurik handiena sortu zuen: Nunca Mais, zeinak ingurumen erantzukizunak eta erantzukizun politikoak eskatzen zituen. Bestalde, Muxia izan zen boluntarioen epizentroetako bat, eta haiei eskainitako eskultura bat egin zuten gertakaria jazo eta gerora. Martin anaiak ez dira gehiago hara itzuli. "Gogoia izan dut, baina barruan zerbait eragiten dit", esan du Jon Andonik. ■■■



Nik bai, eta hik?



IORITZ GONZALEZ

Guraso izan eta semearekin hitz egiten hasi nintzen unetik galdetu izan diot neure buruari ea umeak zer adinekin hasten ote diren hika hitz egiten egiten beren artean. *Sorionekuak* gu, egun, gure herrian prozesu horrek bizi-bizirik eta naturaltasunez dirauelako; hitanoak arnasa hartzen duelako, oraindik ere.

Ezagun da hitanoaren egoera kaskartzen ari dela azken urteetan, eta, ziurrenik, euskararen erabileraren joerarekin loturarik izan dezake. Inguruko herri batzuetako jendearekin hitz egitean, konturatu izan naiz tokaren eta nokaren erabilera asko jaitsi dela azken hamarkadetan; jende heldua elkarrekin eta nirekin ere hika aritu izan da, baina haien seme-alabek hizkera modu hori galdua dute. Neure begiz ikusi ahal izan dut, beraz, gure belaunaldiko euskaldun askok galdu egin dutela aurrekoek zerabilten hizkera.

Jada, Gipuzkoan bertan ere, egoeraz jabeturik, hitanoaren erabileraren betiko erregistroak aldatzearen alde azaldu dira aditu batzuk: esaterako, semeak gurasoei hika hitz egitea egitea bultzatzearen alde dagoenik ere bada, erabilera desagertzearen zantzuak daudela argudiatuz, ohitura aldaketa ezinbestekoa dela iritiz. Egoeraren larritasuna kontuan izanik, ez da harritzekoa.

Nik neuk, guraso moduan, toka eta noka egiten diet seme-alabei; hobe esanda, saiatu egiten naiz. Esan beharra dut, batzuetan buruko mina eman arren, kontzienteki eginiko hautua dela, hitanoaren kantua egunerokotasunean bizi dezaten egin dudana erabaki pertsonala dela.

Aitortzen dut izugarri pozten nauela gure mutil koskorren inguruko umeen artean kantu hori entzuten hasteak. Batzuek naturaltasunez darabilte, adinez oso gaztetxoak izanagatik ere, beren jarioan erabiltzen hasiak direla. Bestalde, datozen belaunaldiek ere modu berean erabiliko ote duten galdetzen diot neure buruari, inguruko herri askotan hika galdu egin dela ikusi izan baitut, arestian aipatu bezala. Esaldi famatu hari jarraiki, askotan esan izan dugu dakigunok erabiltzen badugu ez dela galduko, baina bizitzen ari garen garaiotan, eta ditugun kontsumo ohiturak kontuan izanik, garrantzia eman beharrean gaudela uste dut, kalean betidanik ezagutu dugun hizkerak bizirik irautea bermatu nahi badugu behintzat.

Amaitzeko, aipatu nahi dut laster alabak ere semeak adina urte beteko dituela, eta noka erabiliko ote duen pentsatzean, nire zalantzak ditudala, ez baitut toka egoera berean sumatzen. Irulegiko basakoiek orain dela 2.100 urte zein hizkera modu ote zerabilten? Kantuak dioen moduan, geure arima hiltzen uzteko bezain odol galduak ez ote gara izango. ■■■

**KONTURATU IZAN NAIZ
HITANOAREN
ERABILERA ASKO
JAITSI DELA AZKEN
HAMARKADETAN**

OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B

BALEKE

K

KARKARA

erlo

ERLO



MAXIXATZEN

UHL

UROLA KOSTAKO
HITZA

U

UZTARRIA

ZH

ZARAUZKO
HITZA

Poesiarik ez balitz!



IXABEL JAUREGI

Autoan gindoazen, oraintxe gertatu bezala oroitzen dut. 8-9 urte izango nituen, Zarauztik Zumaiara bidean, udako egun batean, eguzkia sartzen eta izeko Antoni bere ahots gozoz kantatzen... "Eguzkia hasten da,/ jetsitzen, jetsitzen/ dizdizera ederra /zaiola gutxitzen/ diamantezko printzak/ zaizkonian galtzen, /urrezko bola baten/ itxuran da jartzen/ eta geldi-geldi/ da itsaspora sartzen". Letra eta doinua iltzatuta ditut. Gerora, hazi horretatik olerki, kanta, bertsoekiko joera, sentimenduak pizteko gozamen. Joxean Artzeren hitzak datozkit: "Zernahi maitasunez eta gogoz egiten dugunean, guztiok egiten dugu poesia".

Badakit batzuetan zaila egiten dela poesiaren bihotza, esanahia, mezua jasotzea; izan ere, egileak sortze unean gorpuzten duena iritsi egin behar zaio jasotzaileari. Joxantonio Ormazabalak honako hau sortu zuenean: "*Ni euri tanta banintz, egingo nuke zure sudurrean txirrist. Lurrera erortzean salto. Ta hodeietara joango nintzateke berriz!*" Pirritx Porrotx eta Marimototsek abestu, eta hainbat umerengana eta gurasorengana iritsiko zen eta iristen da. Mezua sinplea baina edertasunez betea, norberaren sudurrean sentsazio hori sumatzea eta transmititzea. Edo Mikel Laboak utzi ziguna: "*Maite ditut maite geure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkidanean...*". Eta zer esanik ez Artzeren "*Hegoak ebaki banizkio...*".

Poesia maite dut, lagun ona dut une askotan, isiltasunean, hainbat poetaren eskutik orduak eman ditzakedalako. Hor aukera: Felipe Juaristi, Xabier Borda, Juan Luis Zabala, Jose Luis Otamendi, Miren Agur Meabe, Xabier Lizardi, Bernard Etxepare, Orixe, Gabriel Aresti, Xalbador (*Odolaren mintzoa*), Xabier Lete...

Azken horri helduz, *Izarren hautsa* poema, Laboak musikatua, eredu bikaina da bertsoetaraino egin duen bidea ikusteko: azaroaren 4an, doinu hori erabiliz, Irunen Sustrai Colinak ganbarakoan hiru bertso poesia estetikan, hitzak bikain erabiliz, errimekin asmatuz, sortu zuen istorio ez hain fikziozkoa. Edo Oihana Iguaranek, Gotaine-Iribarneko (Zuberoan) hasierako agurrean Erramun Martikorenak musikatutako *Xorieri mintzo zen* doinuak duen berezitasunari bere ukitua emanez sortu zuena, eta Bertsolaritzaren Datu Basean gorde eta entzungai dagoena, *Hor bide eguzkitsu bat* izendapenarekin.

Amaigabeko zerrenda osa nezake. Bukatzeko, Jon Maiaren eta Benito Lertxundiren *Itsasoari begira* aipatu nahi nuke, niretzat gure herriaren ereserki bihurtzeko mezua eta musika dituelako, eta batez ere *iziko* Antoni zutaz gogoratzer a bultzatzen nauelako. Zu hain maite zenuen Zumaiaren geratu zinelako, beti aipatzen zenuen itsasoari begira. ■■■

Bertsoa paperean

Gaia: Herriko Gabonak.
Izena. Xabi Aldalur
Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko*.

Gure herriko denda bateko

eskapareteko jiran
jarritakoak atentzioa
ta kezka sortu zizkidan
leihu barruko Papa Noelak
barrez begiratzen zidan
Happy New Year ta *Merry Christmas*
koloretsuak segidan
pentsatu nuen ea Gabonak
noiz eta non hasten ziran (bis).

Dena argia ta dena festa

izaten da Gabonetan
baina guztiak ez du balio
kontsumo garai honetan
kontzientzia ta poltsikoa
izan beharko alertan
beraz Herrixen gasta dezagun
bertakoa eta bertan
euskara eta euskal kultura
ez daudelako ofertan (bis).

IZAN KA IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

MAXIXATZEN

LAGUNTZAILEA



Colaboración con Adreth



**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak



dyson

Miele

MILAR LARRAMENDI AURKI DITZAKEZU
DYSON ETA **MIELE** PRODUKTUAK

www.milar.es webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • **www.milar.eus**



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es